

Aiherra

Sortze

Joan den abenduaren 8an, Bixarteko Mariuxi Cobena Urrutia eta Vincent Etcheverry andere jaunek ongietorri egin zioten Inti, Hegoa izendatu duten alabari. Gure goresmenak aitama uroseri, zorionak sortu berriari.

Mus txapelketa Auxotean, urtarrilaren 7tik goiti

Muslari guziek igurikatzen duten Frantziako mus txapelketa laster abiatuko da, Ipar Euskal Herriko xoko guzietan. Aurten finalak Bidarten iraganen dira, Pazko astelehenarekin usaian bezala, apirilaren 10ean. Gure herriari doakionez, partidak Auxotea ostaluan iraganen dira, urtarrilaren 7tik goiti, ibiakoitz arrats guziz (20:00). Haatik txapelketan parte hartzeko izenak abenduaren 30eko berantenez eman behar dira. Auxotea ostalua (05.59.29.64.07), Jaki Biscay (06.38.01.35.28) edo Pette Ospital (06.71.41.82.75) deituz. Dударik gabe, denbora goxoen pasatzeko parada ukanen dute muslari eta muszaleek. Ongietorri deneri!

Pilota, finalean galdu



(Abarratia): Raphaël Lagourgue, Patxi Lelandais, Allande Martinon eta Xalbat Duhalde pilota arduradun eta trebetzaileez inguraturik.

Artekoetan ari diren Xalbat Duhalde eta Allande Martinon aihertar gazteek Euskal Herriko txapelketaren finala galdu dute, Irisarriko trinketean Denek bat-eko Raphael Lagourgue (Donozfiri) eta Patxi Lelandais

(Heleta) gazteen kontra, 40/34. Biba gazteak hein hortara heldurik. Sasoia ez dute bururatua, laster ukanen dugu hauen berri berriz ere, Frantziako txapelketan segitzen baitute.

HERRIA

22/12/2022